



HAUR ETA GAZTE LITERATURA

ISBN: 978-84-19319-80-7
ORRIALDEAK: 64
PREZIOA: 18,00 €

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

KOMIKIA | KLASIKOAK | NARRATIBA

- Klasiko bat, gazteei egokitua eta komikiaren hizkuntzara ekarria.
- George Orwellen obrarik ezagunena koloretako ilustrazio errealista eta fabula satirikoaren zorrotasun berarekin kontatua.
- Idatzi zuenetik mende erdi baino gehiago eta hainbat gerra pasatu diren arren, autoritarismoari egiten dion kritikak ez du, tamalez, gaurkotasunik galdu, eta bidea ematen du orduko egoera gaur egungoarekin dialogoan jartzeko.

ABEREEN ETXALDEA

Thomas Labourot, Maxe L'Hermenier, Parada

Itzultzailea: Aiora Jaka

Ingalaterrako etxalde bateko abereek, gizakientzat lan egiteaz aspertuta, matxinatzea erabakitzen dute. Nagusia kanporatuta, abereek berek kudeatutako etxalde bat antolatzen dute, eta erregimen berri bat ezartzen, Animalismoa, animalia guztientzako berdintasuna eta oparotasuna hitzematzen dituen. Berehala, ordea, desadostasunak agertzen dira Elur Bola idealistaren eta haren arerio Napoleonen artean. Azken horrek, Elur Bola traidoretzat jo eta etxaldetik egotzi ondoren, erregimen totalitario bat ezartzen du, txerriak direlarik botere guztien jabe.

Abereentzat, bizitza gero eta gogorragoa bilakatzen da, eta txerriek, pixkanaka, gizakien jarrera desatsegina hartzen dute. Horrela, hasierako utopia demokratikoa endekatzen joaten da; izan ere, "abere guztiak berdinak dira, baina batzuk besteak baino berdina goak".

Animalien fabula honen bidez, George Orwellek distopia bat proposatzen du, erregimen autoritarioen satira bizia.

THOMAS LABOURET

Thomas Labourotek *Prophecy* rol-jokoaren ilustrazioan ekin zion bere karrerari. 2004an, Jean-David Morvan ezagutu zuen, eta, harekin batera, *Troll* komiki-bilduma berrartu zuen. Gero, Séverine Gauthier gidoilariarekin kolaboratu zuen *Noodles* eta *Team Galaxy* komikiak sortzeko (Soleil argitaletxea). Bi artistek elkarrekin egin zituzten, halaber, *Washita* (Dargaud argitaletxea) eta *Rue de Sèvres* (Aliénor Mandragore argitaletxea). Jungle argitaletxearentzat ere aritu izan da, *Bohémian Galion* bilduma argitaratuta (Maxe L'Hermenier gidoilari). Reimsen bizi da.

MAXE L'HERMENIER

Maxe L'Hermenier komiki-gidoilari frantses bat da, oso egile emankorra. Askotariko unibertsoetan idatzi izan du, errealismotik hasi eta umoreraino, zientzia-fikziotik ere pasatuz. 2018an, Jungle Pépites bilduma irudikatu zuen, gazte literatura komiki formatura egokitzen duen bilduma pedagogikoa. Bilduma honen barruan, hainbat izen handi bildu dira; besteak beste J.C. Mourlevat, Pierre Bottero, Victor Hugo, J.C. Noguès eta beste asko. Reimsetik gertu bizi da.

PARADA

Diego L. Parada marrazkilaria grafiko eta komikilari espainiar bat da, eta freelance moduan egiten du lan.